Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

| IRAGARKIA | ANUNCIO |
|---|---|
| 2018ko urtarrilaren 25ean Soinu-Atadia Erakunde Autonomoaren Lehendakaritzak eman zuen ebazpenaren bidez, Musika Hizkuntzako irakasle kategorian behin-behineko beharrizanak betetzeko kontratazio-burtsa bat sortzeko deialdia eta berariazko oinarriak onartu ziren. | Por Resolución de La Presidencia del Organismo Autónomo Soinu-Atadia, de fecha 25 de enero de 2018, se aprobó la convocatoria y las bases específicas para la creación de una bolsa de contratación para cubrir las necesidades temporales de personal en la categoría de profesor de Lenguaje Musical. |
| Eskabideak aurkezteko epea hogei egun baliodunekoa izango da, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera. Aipatutako oinarriak jendaurrean erakusten dira Leioako Udaletxeko iragarki-taulan, Soinu-Atadia Erakunde Autonomoaren iragarki-taulan, Leioako Udaleko webgunean (www.leioa.eu) eta Soinu-Atadia Erakunde Autonomoaren webguean (www.conservatorioleioa.com). | El plazo para presentación de instancias será de veinte días hábiles a partir de la publicación del presente anuncio. Las referidas bases se encuentran expuestas al público en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento de Leioa, en el Tablón de anuncios del Organismo Autónomo Soinu-Atadia, en la página web del Ayuntamiento de Leioa (www.leioa.eu) y en la página web del Organismo Autónomo Soinu-Atadia (www.conservatorioleioa.com). |
| Horrela jakinarazten da, guztiek horren berri izan dezaten. | Lo que se hace público para general conocimiento. |
| Leioan, 2018ko urtarrilaren 26an | Leioa a 26 de enero de 2018. |

ALKATEA,

Mª Carmen Urbieta González

SOINU-ATADIA ERAKUNDE AUTONOMOA / LEIOAKO UDALA

**LAN POLTSA SORTZEA, MUSIKA HIZKUNTZAREN ESPEZIALITATEKO IRAKASLEAREN KATEGORIAN LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO**

## LEHENENGOA- DEIALDIAREN HELBURUA:

Deialdi honen helburua da kontratazio-poltsa sortzea, Musika Hizkuntzako irakaslearen kategorian, Leioako Udaleko Soinu Atadia Erakunde Autonomoan indarrean dagoen lanpostuen zerrendako 2 kodeko postuan, langileen aldi baterako beharrei erantzuteko; lanpostua lan-kontratudun langileei erreserbatuta dago, A1 sailkapen asimilatuko taldeari eta Udalhitz Enplegu Baldintzen Akordio Arautzailearen 14. mailako ordainsari baliokideei. Postu horrek, gaur egun, 3 zuzkidura ditu atxikita, eta guztiek dute derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna esleituta eta derrigortasun-data ezarrita.

## BIGARRENA.- HAUTAGAIEN ESKAKIZUNAK:

Hautagaiek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak eginiko eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuak aplikatuz, langileen joan-etorri askea aplikagarri duen estaturen bateko naziona1a izatea. Halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalen bizikideak parte hartu ahalko du, betiere zuzenbidez bananduta ez badago, bai eta bere ondorengoek eta bere bizikidearenek ere, betiere, era berean, bizikide biak zuzenbidez bananduta ez badaude, ondorengo horiek hogeita bat (21) urtetik beherako edo hortik gorako mendekoak izan.

b) Egitekoak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

c) Gutxienez hamasei urte izatea eta, hala badagokio, derrigorrezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

d) Goi-mailako musika-titulua izatea, pedagogiaren espezialitatean, graduatua, lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria izatea, edo legez horien baliokidetzat hartzen den beste edozein titulu izatea. Titulua atzerrian lortu badu, titulu hori homologatuta dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko du hautagaiak. Martxoaren 15eko 303/2010 EDaren 20.5 artikuluaren arabera, kontuan hartuko dira, halaber, derrigorrezko titulua ez duten hautagaitzak, betiere beharrezko den kualifikazio profesionala erakusten dutenean eta beren ekimena arlo horretan garatzen dutenean, edo atzerriko nazionalitatea dutenean, bere kualifikazioarekin eta hezkuntza-sistemarekin bat etorriz betiere.

e) 3. HEari dagokion euskara-titulua izatea edo titulu baliokidea; postuko zuzkidura guztiek dute profil hori esleituta.

f) Diziplinazko espediente baten ondorioz edozein Estatuko zerbitzutik, autonomia-mailako edo toki-mailako administraziotik kanporatua ez egotea, edo desgaikuntzarik ez izatea kargu publikoetan eginkizunak betetzeko.

g) Indarrean dagoen araudian aurreikusten diren ezgaitasun edo bateraezintasun kasu batean ere ez egotea.

h) Euskararen derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna esleituta duten lanpostuen kasuetan, hura langileen aldi bateko beharrei erantzuteko dei egiten den egunean egiaztatu beharko da.

i) Sexu-izaerako delituen aurrekaririk ez dagoelako egiaztagiria.

**HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA:**

Instantziak www.leioa.net eta www.conservatorioleioa.com web-orrialdeetan deialdiaren oinarriekin batera eskuragarri jarriko diren eredu ofizialera eta normalizatura egokituko dira.

Eskabideak astelehenetik ostegunera aurkeztuko dira, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era, eta ostiraletan 10:00etatik 13:00etara, Leioako Musika Kontserbatorioko lokaletan (helbidea: Iparragirre etorbidea, 76-A. 48940 Leioa).

Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako edozein modutan ere aurkeztu ahalko dira.

Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Deialdian eskatzen diren tituluen fotokopia konpultsatua edo kopia kautotua.

b) Euskararen 3. hizkuntza-eskakizunaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua edo kopia kautotua.

c) Merezimenduen fotokopia konpultsatua edo kopia kautotua. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren aurretik lortutako merezimenduak baino ezingo dira ebaluatu, betiere horiek instantzian aipatu badira eta deialdian ezarritako epearen barruan egiaztatu badira.

d) Nortasun Agiri Nazionala edo, atzerritarra izanez gero, nortasuna egiaztatzeko dagokion agiria eta, hala badagokio, 2. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Espainiako Estatuan zerbitzuak emateko lan-baimena.

e) Diziplinazko espediente baten ondorioz edozein Estatuko zerbitzutik, autonomia-mailako edo toki-mailako administraziotik kanporatua ez dagoela, edo kargu publikoetan eginkizunak betetzeko desgaikuntzarik ez duela eta ezgaitasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez dagoela egiaztatzeko zinpeko adierazpena.

Instantziak, behar bezala beteta, aurretik aipatutako dokumentazioarekin batera, 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia jendaurrean jartzen den azken komunikabidean iragarrita ageri den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

**LAUGARRENA.- HAUTAKETARAKO EPAIMAHAIA.**

Hautaketa-prozesua egiten duen epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Presidentea:

Leioako Udal Kontserbatorioko zuzendaria. Hari Saileko irakasle arduraduna, ordezkoa.

- Kideak:

– Leioako Udal Kontserbatorioko irakasle bat

– Irakaskuntza-sail bateko irakasle arduradun bat

– Udaleko Giza Baliabideetako Saileko teknikari abokatu arduraduna

- Idazkaria:

– Erakunde Autonomoaren idazkaria edo eskuordetzen duen hango langilea.

Epaimahaian parte hartzeak kalte-ordaina edo konpentsazioa sortuko du, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko zerbitzuengatiko kalte-ordinei buruzko 16/1993 Dekretuan ezartzen diren baldintza eta betebeharrekin, 121/2006 Dekretua, ekainaren 13koa, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko denaren arabera.

**BOSGARRENA.- ONARTUEN ZERRENDA**

Hamar eguneko epean, gehienez, instantziak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbaten hasita, Erakunde Autonomoaren Presidentetzak jendaurrean jarriko du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda; horretarako, erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta www.leioa.net eta www.conservatorioleioa.comweb-orrialdeetan argitaratuko du ebazpena, eta bost eguneko epea emango da, antzeman diren hutsak zuzentzeko edo bazter utzi izanaren aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Aurreko epe hori igaro ondoren, iragarki-taulan eta web-orrialde horietan argitaratuko da, gehienez 5 egunean, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda duen ebazpena.

**SEIGARRENA.- MEREZIMENDUAK**

Merezimenduak direla eta, honela puntuatuko dira:

1. Goi-mailako musikako tituluak izatea (deialdi honetan parte hartzeko gaitasuna ematen duena kontuan hartu gabe), gehienez 10 puntu, 5 puntu titulu bakoitzeko.
2. Hautatu den espezialitateko irakasle-lanetan emandako zerbitzuak, A1 sailkapen-talde asimilatu beraren barruan: Atal honen gehieneko puntuazioa, 30 puntu:

.- Goi-mailako Kontserbatorioan edo profesionalean emandako zerbitzuak, 0,30 puntu lanaldi osoko hilabete bakoitzeko, edo lanaldi partzialean edo hilabete baino gutxiago jardunez gero, dagokion zati proportzionala.

.- Hezkuntza Administrazioak arautatako Musika Eskoletan emandako zerbitzuak, 0,15 puntu lanaldi osoko hilabete bakoitzeko, edo lanaldi partzialean edo hilabete baino gutxiago jardunez gero, dagokion zati proportzionala.

3. Hautatu den espezialitateari buruzko ikastaro, mintegi, jardunaldi eta abarretako asistentzia, gehienez 5 puntu, prestakuntzako 30 ordu bakoitzeko 1 puntu.
4. Irakasgaitasun Ziurtagiria edo hautatu den postuaren egitekoekin zerikusia duen Master ofiziala izatea, gehienez 5 puntu: 3 puntu 60 kreditugatik (ECTS), IGZ edo baliokideagatik; 4 puntu 90 kreditugatik (ECTS) edo baliokideagatik; eta 5 puntu, 120 kreditugatik (ECTS) edo baliokideagatik.

## ZAZPIGARRENA.- Euskara

Aldi baterako beteko den lanpostuaren zuzkidura guztiek dute derrigorrezko euskararen hizkuntza-eskakizuna esleituta; beraz, derrigorrean izan beharko da, instantziak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, hura egiaztatuta.

Horretarako, hautagaiek hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko, honako egiaztagiri hau aurkeztu beharko dute: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako egiaztagiria aurkeztuko dute edo Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak ezartzen duen baliokidetasunaren araberako zentroek emandako egiaztagiria.

## ZORTZIGARRENA.- HAUTAGAIEN ZERRENDA

Hautagaien kalifikazioa eginda, epaimahaiak hautagaien zerrenda emango dio, puntuazio-hurrenkeraren araberakoa, Erakunde Autonomoko Artezkaritza Kontseiluari, onets dezan. Deiak egiteko, langileen aldi baterako beharrei erantzuteko, puntuazio-hurrenkeraren araberako hautagaien ordenari jarraituko zaio.

## BEDERATZIGARRENA.- GERTAKARIAK:

Epaimahaiak ahalmena du hautaketa-prozeduran ageri diren zalantza, gai edo gertakariei erantzuteko, eta bere eskumenekoa da oinarri hauetan ezarritakoa interpretatzea, bai eta horietan araututa egon ez eta planteatzen den edozein gairen aurrean egin beharrekoa egitea eta, oro har, hautaketa-prozedura egokia izateko irizten duena egitea ere.

**ORGANISMO AUTONOMO SOINU-ATADIA / AYUNTAMIENTO DE LEIOA**

**CREACIÓN BOLSA DE EMPLEO PARA CUBRIR LAS NECESIDADES TEMPORALES DE PERSONAL EN LA CATEGORÍA DE PROFESOR DE LA ESPECIALIDAD DE LENGUAJE MUSICAL**

**PRIMERA.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA:**

Es objeto de esta convocatoria la creación de una bolsa de contratación para cubrir las necesidades temporales de personal en la categoría de profesor de Lenguaje Musical, puesto código nº 2 de la Relación de Puestos de Trabajo vigente en el Organismo Autónomo Soinu Atadia del Ayuntamiento de Leioa, reservado a personal laboral, grupo de clasificación asimilado A1, y retribuciones equivalentes al nivel 14 del Acuerdo Regulador de las Condiciones de Empleo Udalhitz. Dicho puesto tiene adscritas actualmente 3 dotaciones, y todas ellas tienen asignado perfil lingüístico 3 con carácter preceptivo y fecha de preceptividad vencida.

**SEGUNDA.- REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES:**

Los aspirantes deberán reunir los requisitos siguientes:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrada por la Unión Europea y ratificada por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores/as. También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad dependientes.
b) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.
c) Tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa.
d) Estar en posesión del título superior de música en la especialidad de pedagogía, graduado, licenciado, arquitecto, ingeniero o cualquier otra titulación superior que tenga reconocida legalmente su equivalencia con éstas. En el caso de titulaciones obtenidas en el extranjero el aspirante deberá aportar la credencial que acredite su homologación. En función del art. 20.5 del RD 303/2010, de 15 de marzo, se considerarán igualmente las candidaturas de profesionales no necesariamente titulados que ostenten la necesaria cualificación profesional y desarrollen su actividad en el ámbito laboral o tengan nacionalidad extranjera, de conformidad con su cualificación y las necesidades del sistema educativo.
e) Estar en posesión del título de euskera correspondiente al PL3 o título equivalente, perfil que tienen asignado todas las dotaciones del puesto.

f) No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario, del servicio del Estado, Administración Autonómica o Local, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas

g) No hallarse incurso en ninguno de los supuestos de incapacidad o incompatibilidad previstos en la normativa vigente.

h) En los casos en los que los puestos de trabajo tengan asignados un perfil lingüístico de euskera preceptivo, la acreditación del mismo a la fecha a la que se lleve a cabo el llamamiento para cubrir necesidades temporales de personal.

i) Justificante de ausencia de antecedentes de delitos de naturaleza sexual

**TERCERA.- PRESENTACION DE SOLICITUDES:**

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado que se pondrán a disposición en las páginas web www.leioa.net y www.conservatorioleioa.com, junto con las bases de la convocatoria.

Las solicitudes se presentarán de lunes a jueves, desde las 10 a 13,00 h. y de 15,30 h. a 18,30 h. y viernes de 10 a 13 h., en los locales del Conservatorio de Música de Leioa, sitos en la Avda. Iparragirre núm. 76-A. 48940 Leioa

También podrán presentarse en cualquier de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Junto con la solicitud se acompañarán los siguientes documentos:

a) Fotocopia compulsada o copia autenticada de los títulos exigidos en la convocatoria.

b) Fotocopia compulsada o copia autenticada del título de Euskera correspondiente o equivalente al perfil lingüístico 3.

c) Fotocopia compulsada o copia autenticada de los méritos alegados. Únicamente podrán evaluarse aquellos méritos que estuvieren contraídos con anterioridad a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, siempre que hubieren sido aducidos en la instancia y acreditados dentro del plazo establecido en la convocatoria.

d) Documento Nacional de Identidad o, en el supuesto de ser extranjero/a, la correspondiente documentación acreditativa de la personalidad y, en su caso, de conformidad con lo establecido en la base 2ª, el permiso de trabajo para prestar servicios en el Estado Español.

e) Declaración jurada para acreditar que no ha sido separado/a mediante expediente disciplinario, del servicio del Estado, Administración Autonómica o Local, que se encuentra inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas, y que no se haya incurso en causa legal de incapacidad o incompatibilidad.

Las instancias, debidamente cumplimentadas, junto con la documentación anteriormente aludida deberán presentarse durante el plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca el anuncio de la convocatoria en el último medio de comunicación en el que se haga pública.

## CUARTA.- TRIBUNAL DE SELECCIÓN.

El Tribunal que llevará a efecto el proceso selectivo, estará integrado de la siguiente manera:

- Presidente/a:

  El Director del Conservatorio Municipal de Leioa. Suplente, Profesor Responsable del Dpto. de cuerda.

- Vocal:

- Un profesor/a del Conservatorio Municipal de Leioa
- Un profesor responsable de un Dpto. docente.
- Técnico Letrado responsable del Dpto. de RRHH del Ayuntamiento.

- Secretario/a :

- La Secretaria del Organismo Autónomo o personal del mismo en quien delegue.

La participación en el Tribunal dará origen a indemnización o compensación, en las condiciones y con los requisitos que se establecen en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio., del Gobierno Vasco, modificado por Decreto 121/2006, 13 junio, de tercera modificación del Decreto sobre indemnizaciones por razón de servicio.

## QUINTA.- RELACION DE ADMITIDOS

En el plazo máximo de diez días contados a partir del de la finalización del plazo de presentación de instancias, la Presidencia del Organismo Autónomo hará pública la relación provisional de admitidos y excluidos mediante resolución que se insertará en el tablón de anuncios del Organismo Autónomo y webs www.leioa.net y www.conservatorioleioa.com, confiriéndose un plazo de cinco días para subsanar los defectos que se hubieran observado o presentar reclamaciones contra la exclusión.

Transcurrido el plazo anterior, se publicará en el tablón de anuncios y páginas web referidas, en un máximo de 5 días, la resolución con la relación definitiva de admitidos y excluidos.

## SEXTA.-MERITOS

En cuanto a los méritos, se puntuarán de la siguiente manera:

1.-Hallarse en posesión de títulos superiores de música (sin computar el que habilita para tomar parte en esta convocatoria), hasta un máximo de 10 puntos, a razón de 5 puntos por cada título.

2.-Servicios prestados como profesor de la especialidad a la que se opta, dentro del mismo grupo de clasificación asimilado A1: Puntuación máxima de este apartado 30 puntos:

.- por servicios prestados en Conservatorio superior o profesional, a razón de 0,30 puntos por mes, en jornada completa o su parte proporcional en caso de contrato a jornada parcial o fracción menor al mes.

.- por servicios prestados en Escuelas de Música, reguladas por la Administración Educativa, a razón de 0,15 puntos por mes, en jornada completa o su parte proporcional en caso de contrato a jornada parcial o fracción menor al mes.

3.-Asistencia a cursos, cursillos, seminarios, jornadas, etc… relativas a la especialidad a la que se opta, hasta un máximo de 5 puntos, a razón de 1 punto por cada 30 horas de formación.

4.-Hallarse en posesión del Certificado de Aptitud Pedagógica o de Master oficial que guarde relación con las funciones del puesto al que se opta, hasta un máximo de 5 puntos, a razón de 3 puntos por 60 créditos (ECTS),CAP o equivalente, 4 puntos por 90 créditos (ECTS) o equivalente y 5 puntos por 120 créditos (ECTS) o equivalente.

**SEPTIMA-Euskera**

Todas las dotaciones del puesto de trabajo a cubrir temporalmente, tienen asignados un perfil lingüístico de euskera preceptivo, por lo que será obligada la acreditación del mismo a la fecha de fin de plazo de presentación de instancias.

Para ello, los aspirantes acreditarán el perfil lingüístico mediante la presentación del correspondiente certificado a expedir por el Instituto Vasco de Administración Pública o certificados expedidos por los centros cuya convalidación establece el Decreto 64/2008, de 8 de abril, del Gobierno Vasco, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y adecuación de los mismos al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas

**OCTAVA.- LISTA DE ASPIRANTES**

Una vez realizada la calificación de los aspirantes, el Tribunal elevará la lista de aspirantes, por orden de puntuación, al Consejo Rector del Organismo Autónomo, para su aprobación. Para los llamamientos, en orden a la cobertura de necesidades temporales de personal, se seguirá el orden de aspirantes por orden de puntuación.

**NOVENA.- INCIDENCIAS:**

El Tribunal queda facultado para resolver cuantas dudas, cuestiones o incidencias se produzcan durante el procedimiento de selección, siendo de su competencia la interpretación de lo establecido en las presentes Bases, así como actuar lo necesario ante cualquier asunto que se plantee y no esté regulado en las mismas, y, en general, cuanto estime conveniente para el buen orden del procedimiento de selección.